# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## EKONOMIA ETA HERRIOGASUN-SAILA

**738**

Herriogasun-Sailordetzaren 1985.eko Martxoaren 27ko ERABAKIA, Kondaira-Lurraldeetako Legearen ondorioz Euskadiko Autonomia-Elkartearen Arduralaritzak hartutako ondasun eta eskubide-multzoa Euskal Osasun Zerbitzuari-Osakidetzari izendatuz.

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Kondaira-Lurraldeetako Osasunketa-alorreko zerbitzuak Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeei eskuratzen zitzaizkiela Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko 1985.eko Martxoaren 6ko 51.Aleko I, II eta III Alezatietako 539, 547 eta 558 idazpurupean argitaratu zela ikusi ondoren.

Foru-Diputazio Txit Gorenaren eta Bitariko Batzordeen arteko erabakien arauera, Euskadiko Autonomia-Elkarteko Arduralaritzak hartutako eraikintzak, ondasunak eta eskubideak Euskal Osasun Zerbitzuari-OSAKIDETZAri eskuratzea eskatzen dueneko Lan, Osasunketa eta Gizarteseguranza-Saileko Sailburu Jn. T. Gorenaren 1985.eko Martxoaren 15eko idazkia ikusi ondoren.

Hori horrela, Euskadiko Ondareari buruzko 1983.eko Uztailaren 27ko 14/1983 Legeko 24. Ataleko 1 lerroaldiak dioenaren arauera eta Ekonomia eta Herriogasun-Sailaren Ihardupide-Araudia onartzen duen Ekainaren 12ko 197/1983 Dekretoko 15 a) eta 29,3 Atalek diotenaren arauera eta dagokion zehaztapidetza aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT:

1.– Kondaira-Lurraldeetako Legearen ondorioz Autonomia-Elkarteko Arduralaritza honek Osasunketa-arloan hartutako, eta erabaki honen azalpen-zatian aipatu eta Zerrenda-Eraskinetan jasotzen diren eraikintzak, ondasunak eta eskubideak Euskal Osasun Zerbitzuari-OSAKIDETZAri eskuratzea. Hemen jasotakotzat jotzen dira zerrenda horiek dagozkien zatietan.

2.– Eraikintzak, ondasunak eta eskubideak, Arduralaritzak beretzat hartu zitueneko egun beretik izango du indarra eskuraketak.

3.– Lan, Osasunketa eta Gizartesegurantza-Sailari eta Erakunde Burujabea den Euskal Osasun Zerbitzuari-OSAKIDETZAri Erabaki honen berri eman bekie.

Gasteiz, 1985.eko Martxoak 27.

Herriogasun-Sailburuordea,
PEDRO LARREA ANGULO.

## DEPARTAMENTO DE ECONOMIA Y HACIENDA

**738**

RESOLUCION de la Viceconsejería de Hacienda, de 27 de Marzo de 1985, sobre adscripción al Servicio Vasco de la Salud-Osakidetza del conjunto de bienes y derechos recibidos por la administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en virtud de la Ley de Territorios Historicos.

Visto el Boletín Oficial del País Vasco nº 51 de 6 de marzo de 1985, Fascículos I, II y III en el que se publicaron los traspasos de servicios de los Territorios Históricos de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma en materia de Sanidad, bajo los epígrafes 539, 547 y 558, respectivamente.

Visto el escrito del Excmo. Sr. Consejero de Trabajo, Sanidad y Seguridad Social de fecha 15 de marzo de 1985 por el que se solicita la adscripción al Servicio Vasco de la Salud-OSAKIDETZA de los inmuebles, bienes y derechos recibidos por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi de conformidad a los acuerdos de las Comisiones Mixtas con las Excmas. Diputaciones Forales respectivas.

En su virtud, con base en el artículo 24 nº 1 párrafo 1 de la Ley 14/1983 de 27 de julio de 1983, sobre Patrimonio de Euskadi y en los artículos 15 letra a) y 29 nº 3 del Decreto 197/1984 de 12 de junio por el que se aprueba el Reglamento Orgánico del Departamento de Economía y Hacienda, una vez examinado el correspondiente expediente

RESUELVO:

1º) Adscribir al Servicio Vasco de la Salud-OSAKIDETZA todos los inmuebles, bienes y derechos recibidos en materia de Sanidad por esta Administración de la Comunidad Autónoma en base a la Ley de Territorios Históricos, los cuales se encuentran recogidos en las respectivas Relaciones Anexas enunciadas en la parte expositiva de la presente. Tales Relaciones se dan por aquí reproducidas en su parte correspondiente.

2º) La fecha de la efectividad de la adscripción será la misma en que los inmuebles, bienes y derechos se entendieron recibidos por esta Administración.

3º) Comuníquese la presente Resolución al Departamento de Trabajo, Sanidad y Seguridad Social y al Organismo Autónomo Servicio Vasco de la Salud-OSAKIDETZA.

Vitoria-Gasteiz, a 27 de Marzo de 1985.

El Viceconsejero de Hacienda,
PEDRO LARREA ANGULO.